

LANGILERIA BERRI BATEN ERAKETA. IRUÑERRI 1956-1976

Tesiaren egilea: Nerea Perez Ibarrola

Unibertsitatea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Saila: Geografia eta Historia Saila

Tesi-zuzendaria: Emilio Majuelo Gil

Tesiaren laburpena:

Tesi honetan frankismoaren garaiko Iruñerriko langileriaren eta haren identitatearen eraketa aztertzen da. Lanaren abiapuntua da diktaduraren amaieran Iruñerriko langileek agertutako jarrerren oinarrian identitate komun eta partekatu bat zegoela. Identitatea eta klase-kontzientzia bezalako kontzeptuak, beraz, urte haietan langileek lortu zuten antolamendu- eta borroka-maila azaltzeko gako bihurtzen dira tesi honetan.

Ikerketa zazpi ataletan egituratzen da. Lehenbiziko hiru atalek Iruñerriko langileen identitatea zer testuingurutan sortu zen aztertzen dute. Lehenbizikoan, frankismoa, langile-klasearen errealitatea baldintzatzen duen testuinguru bezala aurkezten da; batetik, erregimen berriak (30eko hamarkadako langile-klasearen suntsiketarekin eta langileei berezko identitate baten erreproduktzioarako esparruak kendu zizkien estatu-eredu bat ezartzearekin) langileek euren identitatea eratzeko izango zituzten aukerak baldintzatu zituelako eta, bestetik, desarrollismo frankistak (berekin eraldaketa sozioekonomiko sakonak ekartzearekin) subjektu sozial berriak sortu eta errealitate sozial berriak osatu zituelako. Bigarrenean, Iruñerriko langileak zeintzuk ziren eta nolakoak ziren aztertzen da. Horretarako, emakume eta gizon haien ezaugarri nagusiak azaltzen dira, gerora hartuko zituzten jarrerak eta egingo zituzten hautuak ulertzeko asmoarekin. Hirugarrenean, langile haiek desarrollismo frankistaren testuinguru hartan bizi izan zuten errealitaterako hurbilpen bat egiten da, errealitate sozioekonomiko berriek langileen bizitzan izan zuten eragina euren ikuspuntutik ezagutzeko.

Hurrengo hiru ataletan langile-identitate hura nola eratu zen azaltzen da, hura eratu zen esparru desberdinak azaleratuz eta eraketa horretan parte hartu zuten eragile desberdinak identifikatuz. Laugarren atala Iruñerriko langile-auzoetan kokatzen da, horietan gertatu zen bizimodu komunitarioen errotzea, soziabilitaterako berezko esparruen sorrera edota problematika kolektibo berriei aurre egiteko mobilizazio eta borroka kolektiboak aztertzeko. Bosgarren atalean Eliza Katolikoaren inguruko esparru, eragile eta sareek —bereziki apostolutza-mugimendu sekularrek— langile-identitatearen eraketan izan zuten ezinbesteko papera jorratzen da. Seigarren

atalak fabrika du hizpide, esparru horien baitan sortutako langile-mugimenduaren eta protesta-formen azterketa egiten delarik.

Ikerketaren azkeneko atalak frankismoaren amaieran identitate hori existitu egin zela agerian uzten du; zazpigarren eta azken kapituluan, Iruñerrian 70eko hamarkadan gertatu ziren lan-gatazka garrantzitsuenak aztertzen dira, azkenik.

Bukatzeko, identitate haren eduki nagusiak, hots, langileek bere egin zituzten zenbait ideia, kontzeptu eta balio identifikatzen eta aztertzen dira.

Ondorioetan frankismoaren amaieran Iruñerriko langileek identitate komun bat partekatzen zutela baieztatu dela nabarmentzen da, eta identitate hori eraketa-prozesu baten emaitza izan zela ere. Izan ere, prozesu horretan, langile-auzoetan bizi-baldintza eta arazo antzekoekin bizitzearen ondorioz, eta fabriketan esperientzia eta arazo antzekoak partekatzearen ondorioz, langileek beren burua berdintzat hartu zuten; eta arazo, premia eta jomugetan berdinduta, euren errealitatea eraldatzeko talde bezala jardun zuten.